

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2964

26/2025 EBAZPENA, ekainaren 19koa, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Laura Biritxinaga Rodríguez andrea Kudeaketa Klinikoko unitateburu (Kudeaketa Klinikoko Unitatea-1) izendatzen baita, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroan.

Maiatzaren 15eko 22/2025 Ebazpenaren bidez deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko Kudeaketa Klinikoko unitateburu (Kudeaketa Klinikoko Unitatea-1) lanpostu bat izendapen askez betetzeko (2025eko maiatzaren 23ko EHAA, 96. zk.).

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Laura Biritxinaga Rodríguez andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Kudeaketa Klinikoko unitateburu (Kudeaketa Klinikoko Unitatea-1) izendatzea, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroan.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Laura Biritxinaga Rodríguez andrea Kudeaketa Klinikoko unitateburu (Kudeaketa Klinikoko Unitatea-1) izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2025eko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere esku-men-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak honako hau eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko da, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, ezau-garri berberak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurralde-eremu berberetan. Atxikitze horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko Langileen Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2025eko ekainaren 19a.

Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko zuzendari-gerentea,
ROBERTO IBARRETXE ALTUBE.